

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

UE-7 Herediako hitzarmena. Hasierako onarpena

Alkate-Udalburuak, 2019ko maiatzaren 24ko 226 Erabakiaren bidez, honako hau onartu zuen:

Lehenengoa. UE7-Heredia egikaritze-unitatea gauzatzeko Adela Martínez de Lizarduy Madinarekin hirigintza-hitzarmena hasieran onartzea. Hitzez hitz hala dio:

DEREDIAKO (BARRUNDIA) U. E. 7 BURUTZAPEN-UNITATEA EGIKARITZEKO HITZARMENA

Ozaetan, 2019ko

BILDUTA

Batetik,

Afro Olabe Martínez de Albeniz jauna, zeinaren datu pertsonalak ez diren adieraziko bere karguaren arabera jarduteagatik.

Bestetik,

Adela Martínez de Lizarduy Madina andrea, adinez nagusia, NA zenbakia duena, eta helbidea

PARTE HARTU DUTE

Afro Olabe Martínez de Albeniz jaunak, Barrundiako Udalaren izenean eta haren ordezkari, Alkatea den heinean eta, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1.b artikulua arabera, egintza honetarako ahaldunduta dagoelako.

Adela Martínez de Lizarduy Madina andreak, bere izenean eta bere eskubidea baliatuta, eta hitzarmenaren xede den hiri-finkaren jabea delako.

ADIERAZI DUTE

Lehenengoa. Adela Martínez de Lizarduy Madina andrea Deredia herriko (Barrundia) UE-7ren jabe bakarra da, Gasteizko Francisco Rodríguez-Poyo Segura notario jaunaren aurrean emandako jarauntsia adierazteko eta onartzeko, eta ondasunak esleitzeko, eskrituraren arabera.

Bigarrena. Deredia herriko UE-7k 3.046 m²-ko azalera du, eta, eremu horretan, kudeaketa-fitxari jarraiki, bi etxebizitza eraiki daitezke dauden eraikinetan, bai eta eraikuntza berriko familia bakarreko etxe bakartu bat ere.

Hirugarrena. Udalerrian indarrean dauden udal-plangintzako arau subsidiarioen 12. artikulua xedatzen du Plangintzaren kudeaketa aurreko hirigintza-legeriako edozein jarduketa-sistemaren bidez egingo dela, hau da, konpentsazioaren, kooperazioaren edo desjabetzearen bitartez -Udalak hautatuko du-. Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Legea indarrean sartzean, baina, bestelako lau sistemak -bi egikaritze publikoko erregimenean eta beste bi pribatukoan- ordeztu dituzte aurreko hirurak.

Egikaritze pribatuko erregimenean hitzarmen-sistema sartu da; betekizunetako bat da Udalak eta eremuko lurzoruaren jabeek hitzarmen bat sinatzea, zeinaren edukia Lurzoruari buruzko Euskal Legearen 160.2. eta 5. artikulua xedatzen duten.

Horiek horrela, alde biek hitzarmen hau egitea adostu dute, ondorengoetan oinarrituta:

BALDINTZAK

Lehenengoa. Hitzarmen-sistema aukeratu da Deredia herriko UE-7ren kudeaketa eta garapenerako, Plangintzaren helburuak hobeto betetzeko eta kasu honetako egoerak eta baldintzak ikusirik.

Bigarrena. Jabeak konpromisoa hartu du Deredia herriko UE-7 egikaritzeko birpartzelazio-dokumentua eratzeko, Barrundiako arau subsidiarioetan ezarritakoa, hain zuzen.

Hirugarrena. Derediako UE-7ren birpartzelazio-proiektuak Barrundiako Udalari esleituko dizkio hitzarmen honen ondoriozko finken barnean bideak egiteko nahitaez laga beharreko lursailak, eremuaren fitxan zehaztuak.

Laugarrena. Lurzoruari buruzko Euskal Legearen 27.1. artikulua arabera, haztatutako eraikigarritasunaren ehuneko 15 ere Udalari lagako zaio.

Aintzat hartuta aprobetxamendu horrek ez dakarrela udal-jabari osoan berriro birpartzelatzearen ondoriozko finka bat esleitzea, horren balioa eskudirutan ordainduko da.

Aprobetxamenduaren balioa 26.498,76 eurokoa da.

Zenbateko hori birpartzelazio-proiektua behin betiko onartutakoan ordainduko zaio Udalari, gehienez ere hilabeteko epean. Ordainketa ezinbestean egin beharko da obra-lizentzia eskuratu ahal izateko.

Bosgarrena. Jabeak bere gain hartuko ditu Derediako U. E. 7ren urbanizazio-gastu guztiak.

Seigarrena. Hitzarmen hau izenpetu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan, eta hartutako konpromisoen berme gisa, jabeak, Adela Martínez de Lizarduy Madina andreak, urbanizazio-gastuen ehuneko 7ko abala formalizatuko du, hots, 2.156,37 euro, urbanizazio-gastuen zenbatespena 30.805,35 eurokoa baita.

Zazpigarrena. Halaber, lanen ziurtapena jaso ondoren, Udalak abala deuseztatuko du, berme-epea lanetan kalterik gertatu gabe igarotakoan.

Zortzigarrena. Hala egungo jabeek nola etorkizunean haien lekua hartuko dutenek bete beharko dituzte hitzarmen honetan jasotako konpromisoak.

Bigarrena. Espedientea 20 lanegunez jendaurrean jartzea. Epea espedienteari buruzko iragarkia Udaletxeko Ediktuen Oholtzan, ALHAOn, Lurralde Historikoan hedapen handienetakoa duen egunkari batean eta Udalaren web orrian jarri eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Ozaetan, 2019ko maiatzaren 24an

Alkatea

AFRO OLABE MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ